

2026ko maiatza



-arazi forma

Ekintzak eragileren bat duela adierazten dute aditz arazleek. Aditz "erazleak" edo "arazleak" eratzeko, euskaraz *arazi* / *erazi* / *erazo* / *arazo* aldaeretan agertzen den hitzaz baliatzen gara. Hitz hori dagokion aditzaren ondo-ondoan doa perpausean, eta delako aditzaren erroa da berez agertzen dena. Horretaz bestalde eragin ere badugu, euskalki guztietan *egin*-en bidez eratzen diren aditzen "erazle" gertatzen dena, eta, bizkaieraz, batez ere, gainerako aditzekin ere erabiltzen dena. Forma hori erabiltzerako orduan, ordea, zalantzak sortzen dira idazkerari dagokionez.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

- Tradizioan, *-arazi* formaz gainera, *-erazi*, *-erazo*, *-arazo* aldaerak ere ageri dira. Euskara baturako, *-arazi* **hobetsi** da: *harrarazi*, *hilarazi*, *jokarazi*... Salbuespen bakarra *adierazi* aditzarekin gertatzen da.
- Formaren aldetik, *-arazi* atzikia aditzoinari lotzen zaio: *bilarazi* (*bil* + *-arazi*), *ikusarazi* (*ikus* + *-arazi*), *jakinarazi* (*jakin* + *-arazi*), *iraunarazi* (*iraun* + *-arazi*)...
- *-arazi*-ren aurreko aditza *-a* bokalaz amaitzen baldin bada, *-a* **biekin bat egingo da**: *aldarazi* (**aldaarazi*), *benedikarazi* (**benedikaarazi*), *jokarazi* (**jokaarazi*), *koordinarazi* (**koordinaarazi*), *obligarazi* (**obligaarazi*), *sozializarazi* (**sozializaarazi*)...
- *-t* batekin bukatzen diren aditzoinen kasuan, *-t* gabekoak dira baturako formak: *agerrarazi* (**agertarazi*), *sorrarazi* (**sortarazi*), *ezkonarazi* (**ezkontarazi*)...
 - Bada salbuespeneik, ordea; *-arazi*-rekin *-t* atxikitzen dute honako hauek: *ulertarazi* (*ulert* + *-arazi*), *ohartarazi* (*ohart* + *-arazi*), *urtarazi* (*urt* + *-arazi*) eta *agintarazi* (*agint* + *-arazi*)...
- Aditzoina *-r* batekin bukatzen denean, normalean *-r* hori *bikoizten* da: *sar(tu)* > *sarrarazi* (**sartuarazi*), *igor(ri)* > *igorrarazi* (**igorriarazi*)
 - Salbuespenak: *eror(i)* > *erorarazi*, *eserarazi*, *isurarazi*...
- *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arabera, aditzoina bi modutan eman daitekeen kasuetan, *-tu/-du* gabea hartzen da *-arazi* eransteako: *garbi(tu)* > *garbiarazi* (**garbituarazi*); *berri(tu)* > *berriarazi* (**berrituarazi*).



Ohiko erdarakadak



✗ **Zirujau bat, bizarrarekin, makurtu egin da.**

✓ **Zirujau bat, bizarduna, makurtu egin da.**



✗ **Bisera klasikoa, gomarekin eta beltza.**

✓ **Bisera klasikoa, gomaduna eta beltza.**



✗ **Ontzi errektangularra, taparekin.**

✓ **Ontzi errektangularra, tapaduna.**

-rekin edo -dun

-dun atzizkiak zerbaiten jabetza edo ezaugarria adierazten du; hau da, zerbait baduela.

Horregatik, ezin da gaztelaniaren egitura hitzez hitz kalkatu, eta "zerekin" deklinabide-atzizkia erabili (-rekin). Beraz, ezaugarria edo edukiera adierazi nahi denean, -dun atzizkia erabili.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



ABIADAK ≠ IRTEERAK

Zain dezagun euskara!